*"La modificación introducida en el artículo 14.1 del presente Reglamento Orgánico, relativa a la designación por los Grupos Municipales de sus representantes en función de los votos obtenidos por cada candidatura en las secciones censales incluidas dentro del ámbito geográfico del Distrito, será de aplicación a partir del comienzo de la legislatura correspondiente a los años 2023-2027.*

*TERCERO.- Someter el texto a trámite de información pública durante el plazo de 30 días según lo dispuesto en el articulo 49 de la Ley 7/85, de 2 de Abril, de Bases de Régimen Local, a fin de que los interesados puedan presentar las reclamaciones o sugerencias que estimen oportunas. En el caso de que estas no se presenten, se entenderá aprobada definitivamente la modificación del Reglamento Orgánico de los Distritos de San Sebastián.*

Y para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta Certificación , visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a seis de febrero de 2020.

ALKATEAK O. E. /

V. º B. º DEL ALCALDE,

Eneko Goia Laso

-----------

**OGASUNEKO BATZORDEA**

**10. Garraio erregularreko zerbitzuak zergaz kanpoko prestazio publikoa arautzen duen ordenantzaren lehenengo aldaketa hasierako izaeraz onartzea.**

“UDALBATZARI

Garraio erregularreko zerbitzuak zergaz kanpoko prestazio publikoa arautzen duen ordenantza 2019ko irailaren 26an onetsi zen hasiera batean.

Jendaurrean egoteko eta interesdunei entzunaldia emateko 49 b) artikuluan ezarritako epea iraganik, inork alegaziorik edo iradokizunik aurkeztu ez duenez, behin betiko onetsitzat jo behar da.

2019ko abenduaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren arabera, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65.2 artikuluan aurreikusitako epea igaro ondoren, ordenantza 2019ko abenduaren 6an jarri zen indarrean.

Bestalde, Udalak, garraioaren lurralde agintaritzarekin sinatutako hitzarmenaren bidez (2013ko otsailaren 6an sinatua), tarifak integratzeko sistema ezartzeko beharrezko ahaleginak egitera behartu zuen bere burua. Horregatik, Udalak bere tarifak Garraioaren

**COMISIÓN DE HACIENDA**

**10. Aprobación inicial de la modificación (primera) de la Ordenanza reguladora de la prestación pública de carácter no tributario por el servicio de transporte regular.**

“AL AYTO PLENO

La Ordenanza Reguladora de la prestación pública de carácter no tributario por el servicio de transporte regular fue aprobada inicialmente el 26 de septiembre de 2019.

Transcurrido el plazo de información pública y audiencia a los interesados previsto en el artículo 49 b) sin que se presentara ninguna alegación o sugerencia ha de entenderse definitivamente aprobada.

Según el anuncio publicado en el Boletín oficial de Gipuzkoa de 5 de diciembre de 2019, transcurrido el plazo previsto en el artículo 65.2. de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, la ordenanza entró en vigor el 6 de diciembre de 2019.

Por otra parte, el Ayuntamiento, vía convenio con la autoridad territorial del transporte (suscrito el 6 de febrero de 2013), se obligó a realizar los esfuerzos necesarios para la implantación del sistema de integración tarifaria. Es por ello que el Ayuntamiento ha de

Lurralde Agintaritzaren Batzarrean onesten direnekin bateratu behar ditu.

armonizar sus tarifas con las que se aprueben en la asamblea de la Autoridad Territorial del transporte.

Hala, 2019ko abenduaren 11n, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza Partzuergoaren Batzar Orokorrak “2020-2021 tarifak” onetsi zituen ohiko bilkuran.

Así, el 11 de diciembre de 2019, la Asamblea General del Consorcio Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa, en sesión ordinaria aprobó las “tarifas 2020-2021”.

Ondorioz, aldatu egin behar dira hiriko garraioaren tarifak, eta horrek berekin dakar garraio erregularreko zerbitzuagatik zergaz kanpoko prestazio publikoa arautzen duen ordenantza aldatzea.

Ha de procederse, en consecuencia, a la modificación de las tarifas de transporte urbanas, lo que conlleva la modificación de la Ordenanza Reguladora de la prestación pública de carácter no tributario por el servicio de transporte regular.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 26. artikuluak ezartzen duenez, 50.000 biztanletik gorako udalek bidaiarien hiriko garraio kolektiboaren zerbitzua eman beharko dute.

La Ley 7/1985, de 2 de abril, de bases de régimen local en su artículo 26, establece que los Ayuntamientos con más de 50.000 habitantes deberán prestar el servicio de transporte colectivo urbano de viajeros.

Ildo beretik, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2 / 2016 Legearen 17.1.18 artikuluak ezartzen du udalerriek eskumenak erabili ahal izango dituztela pertsonen garraio publikoko hiri-zerbitzuetan, edozein garraiobideren bidez oso-osorik beren udalerrietan egiten badira.

En el mismo sentido, La Ley 2 / 2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi en su artículo 17.1.18. establece que los municipios podrán ejercer competencias en los servicios urbanos de transporte público de personas que, por cualquier modo de transporte, se lleven a cabo íntegramente dentro de sus respectivos términos municipales.

Eskumen hori garraioaren arloan emandako legeria sektoriala errespetatuz erabili behar da. Hala, bada, Errepideko Bidaiari Garraioari buruzko martxoaren 18ko 4/2004 Legearen 4.3 artikuluak ezartzen du Udalek eskumena izango dute, herri barruko garraioaren arloan, bidaiari-garraio publikoaren zerbitzuak antolatu, kudeatu eta ikuskatzeko eta dagozkion zehapenak ezartzeko; orobat, dagozkion titulu gaitzaileak esleitzeko eta tarifa-araubidea finkatzeko, gai horri buruzko legeria aplikagarrian xedatutakoari jarraituz.

Dicha competencia ha de ejercerse con respeto a la legislación sectorial dictada en materia de transporte. Así, El artículo 4.3. de la Ley 4/2004, de 18 de marzo, de Transporte de Viajeros por Carretera establece que Los ayuntamientos son competentes, dentro del ámbito del transporte urbano, para la ordenación, gestión, inspección y sanción de los servicios de transporte público de viajeros, otorgamiento de los correspondientes títulos habilitantes y fijación del régimen tarifario con sujeción a lo dispuesto en la legislación

aplicable al respecto.

Udalak izendatuta duen arautze ahalmena erabilita —4.1 artikuluak xedatu bezala, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7 / 1985 Legeko 3.1 artikuluari lotuta—, eta Donostiako Udalbatzaren Araudiko 49. artikuluak nahiz 107. zein hurrengo artikuluek xedaturikoaz bat, Mugikortasuneko eta Garraioko zinegotzi ordezkariak ondokoa onartzea proposatzen dio Gobernu Batzarrari

En el ejercicio de la potestad reglamentaria atribuida al Ayuntamiento conforme a las previsiones del artículo 4.1 en relación con el artículo 3.1. de la LBRL, y de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 49 y el artículo 107 y siguientes del Reglamento Orgánico del Pleno del Excmo. Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián, la Concejala Delegada de Movilidad y Transporte, propone a la Junta de Gobierno Local la adopción del siguiente

AKORDIOA

ACUERDO

BAKARRA.- Garraio erregularreko zerbitzuak zergaz kanpoko prestazio publikoa arautzen duen ordenantzaren lehenengo aldaketa onartzea. Horrela ordenantzaren eranskinean:

ÚNICO.- Aprobar el proyecto de modificación (primera) de la de Ordenanza Reguladora de la prestación pública de carácter no tributario por el servicio de transporte regular de manera que en el anexo de la ordenanza:

-Hau jartzen duen tokian:

--Donde dice:

| *Garraio Tituluak*<br>*Títulos de transporte* | *Oinarrizko tarifa €*<br>*Tarifa base €* | *BEZ*<br>*IVA* | *Guztira*<br>*Total* |
|---|---|---|---|
| Noizean behingo txartela/Billete ocasional | 1,64 | 0,16 | 1,80 |
| Txartel berezia (gauekoa)/Billete especial (nocturno) | 1,91 | 0,19 | 2,10 |
| Dbus bonua (bidaiako)/Bonobus Dbus (por viaje) | 0,87 | 0,08 | 0,95 |

- Hau jartzea:

- Diga:

| *Garraio Tituluak*<br>*Títulos de transporte* | *Oinarrizko tarifa €*<br>*Tarifa base €* | *BEZ*<br>*IVA* | *Guztira*<br>*Total* |
|---|---|---|---|
| Noizean behingo txartela/Billete ocasional | 1,68 | 0,17 | 1,85 |
| Txartel berezia (gauekoa)/Billete especial (nocturno) | 2,27 | 0,23 | 2,50 |
| Dbus bonua (bidaiako)/Bonobus Dbus (por viaje) | 0,87 | 0,09 | 0,96 |

Donostia, 2019ko abenduaren 16an/Donostia, 16 de diciembre de 2019
MUGIKORTASUNEKO ADMINISTRAZIO ATALAREN BURUA
LA JEFA DE LA SECCIÓN ADMINISTRATIVA DE MOVILIDAD

Josefa Estrella Merino

| | |
|---|---|
| MUGIKORTASUNEKO ETA GARRAIOKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA | MUGIKORTASUNEKO ZUZENDARIA / |
| LA CONCEJALA DELEGADA DE MOVILIDAD Y TRANSPORTE | LA DIRECTORA DE MOVILIDAD |
| Pilar Arana Pérez | Jone Argoitia Iraola" |

Eztabaida hasita, Maria Pilar Arana Pérez andreak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andreak eta Enrique Ramos Vispo jaunak, parte hartu dute puntu honetan. Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as, D.ª Maria Pilar Arana Pérez, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi D.ª Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego y D. Enrique Ramos Vispo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 21- (9) EAJ-PNV, (6) EH BILDU, (4) PSE-EE, (2) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 3 - ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 0**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 21- (9) EAJ-PNV, (6) EH BILDU, (4) PSE-EE, (2) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 3 - ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 0**

---------------

**II**

**INFORMAZIO, SUSTAPEN ETA KONTROLA**

**II**

**INFORMACIÓN, IMPULSO Y CONTROL**

**MOZIOAK**

**MOCIONES**

**II.1**

**MOZIO ARRUNTAK**

**II.1**

**MOCIONES ORDINARIAS**

**11. Mozio Arrunta, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, Ulian ehiza debekatzeari buruzkoa.**

“Haizea Garay Gallasteguik Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, Ulian ehiza egiteari buruzko mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA

2019ko irailaren 9ko 0090LI/2019 Foru Arauak berriz ere sartu zituen 46 lanpostu Gipuzkoako ohiko pasabide lerro eta postuen erregistroan (horietako 36, Donostiako udalerrian). Horren ondorioz, ehiza itzuli da Uliara eta Mendiolara.

Erabaki hori atzera pausoa da Ulia mendia hiri-inguruko parke gisa finkatzeko prozesuan. Gogoratu dezagun 2018ko maiatzean Udalbatzak erabaki zuela Uliako Parkearen Bateragarritasun Planak argi eta garbi islatu behar zuela Uliaren hiri-inguruko parkearen izaera, eta, halaber, biztanleek inguru natural horretaz modu baketsuan gozatzera bideratu behar zituela bertako erabilerak. Ehizaren itzulerak nekez bermatuko du herritarren gozamen baketsua.

Gainera, interes publikoa dago Ulia-Mendiola eta Ulia-Plata Itsarargia lerroetan ehiza desagertzeko. Interes hori, gainera, agerikoa da: Donostiako herritarrek eta Donostiakoak ez direnek maiz erabiltzen dituzte mendi horretako bideak. Inguru hori aisialdirako eta

**11. Moción Ordinaria, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, sobre la prohibición de la caza en Ulia.**

“Haizea Garay Gallastegui, concejala del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción para su debate en el pleno, sobre la caza en Ulia

JUSTIFICACIÓN

La norma foral 0090LI/2019 de 9 de septiembre del pasado año 2019 volvió a incluir en el registro de líneas y puestos de paso tradicional de Gipuzkoa un total de 46 puestos -36 de ellos en el término municipal de Donostia-, lo cual ha supuesto la vuelta de la caza a Ulia y a Mendiola.

Este hecho supone un paso atrás en la consolidación del monte Ulia como parque periurbano. Recordemos que en mayo de 2018 el Pleno municipal acordó que el Plan de Compatibilización del Parque de Ulia “debía reflejar de manera inequívoca el carácter de parque periurbano y con ello dirigir los usos en el mismo al disfrute pacífico por la ciudadanía de ese entorno natural”. La vuelta de la caza difícilmente va a garantizar el disfrute pacífico de la ciudadanía.

Existe además un interés público en la desaparición de la caza en las líneas de Ulia-Mendiola y Ulia-Faro de la Plata, el cual queda manifiesto de hecho en el uso frecuente de la ciudadanía donostiarra y no donostiarra de vías y caminos de este monte, ciudadanía que

atsedenerako eremutzat hartzen dute, beren gozamenerako. Bestalde, Ulia ehizarik gabeko eremua izateko interes publiko hori berariaz aditzera eman dute komunikabideetan elkarte ekologistek, bizilagunen elkarteek eta beste erakunde batzuek, hala nola hainbat ikastetxek.

reconocen en este entorno un área cercana de esparcimiento y ocio para su disfrute. Y por otro lado, este interés publico en que Ulia sea un espacio libre de caza también ha sido declarado expresamente en medios de comunicación por asociaciones ecologistas, asociaciones de vecinos y otras instituciones como colegios.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2018ko uztailaren 10ean, 401 LI Foru Agindua (GAO, 135. zk., 2018ko uztailaren 13a) argitaratu zuen, 2014ko uztailaren 23ko 423/2014 Foru Agindua aldatzeko (2014ko agindu horren bidez, segurtasun-eremuan armekin ehizatzeko debeku orokorretik kanpo utzi ziren Uliako kostaldeko baimendutako lerroetako postu finkoak, Donostiako eta Pasaiako udalerrietan). 2018ko agindua argitaratu ondoren, Aldundiak adierazi zuen tresna juridikoak landuko zituela, ehiza jarduera ekiditeko. Hala, 2018ko irailaren 18ko 0503 LI/2018 Foru Aginduaren bidez (GAO, 182. zk., 2018ko irailaren 20a) Ulia-Mendiola eta Mendiola-Plata Itsasargia izeneko lerroetako 46 postuak kendu ziren Gipuzkoako ohiko lineen eta pasabideen erregistrotik. Aipatutako 2018ko irailaren 20ko 0503 LI/2018 Foru Aginduak hau dio, besteak beste:

La misma Diputación de Gipuzkoa, tras publicar la Orden Foral 401 LI, de 10 de julio de 2018 (BOG nº 135, de 13 de julio de 2018), orden de modificación de la Orden Foral n.º 423/2014, de 23 de julio y por la que se excluía de la prohibición general de caza con armas en la zona de seguridad los puestos fijos pertenecientes a las líneas autorizadas de la zona costera de Ulia, en los términos municipales de San Sebastián y Pasaia, anunció que trabajaría en desarrollar instrumentos jurídicos para evitar que se desarrollase la actividad de la caza. Así, mediante Orden Foral 0503 LI/2018 de 18 de septiembre (B.O.G. nº 182, de 20 de septiembre de 2018) se procedió a la exclusión del Registro de líneas y puestos de paso tradicional de Gipuzkoa los 46 puestos de las líneas denominadas Ulia-Mendiola y Mendiola-Faro de la Plata. En su texto, la referida Orden Foral señala lo siguiente:

“Espedientea abian jartzeko arrazoia da ehiza jarduerak eragina duela gune horretan ematen diren aisialdiko beste erabileretan. Izan ere, mendi horretara jende asko joaten da biztanle dentsitate handiko herri guneetatik, eta Gipuzkoako ibilbide homologatu garrantzitsuenetakoak elkartzen dira bertan, hala nola GR-121 Talaia, Santiago Bidea eta SL Gi 33Uliako itzulia.

“El inicio del citado expediente se fundamenta en la afección que el ejercicio de la caza tiene sobre otros usos recreativos que confluyen en dichos espacios dada la gran afluencia de visitantes al citado monte al estar el mismo muy cercano a zonas con alta densidad de población y por contar con la existencia de senderos homologados de gran importancia en Gipuzkoa como son el GR-121 Talaia, el Camino de Santiago y el SL Gi 33 Vuelta a

Ulia.

Egoera horretan, ehiza jarduerak eragin handia du eremu horren gainerako erabiltzaileengan, bai tiroek sortzen duten zaratagatik bai pertsonen segurtasun fisikoagatik.

El ejercicio de la caza en este contexto supone una afección considerable para el resto de la ciudadanía usuaria de ese espacio, tanto por el ruido generado por los disparos como por motivos de seguridad física de las personas.

Zentzu honetan, aipatu behar da Donostiako eta Pasaiako udalek behin baino gehiagotan azaldu dutela gai horren inguruko kezka, eta Departamentuari eskatu diotela Ulia mendian ehizatzeko baimenik ez ematea, bi udalentzat hiri inguruko parkea baita Ulia mendia."

En este sentido, hay que señalar que los Ayuntamientos de San Sebastián y Pasaia, han manifestado en diversas ocasiones su preocupación por esta cuestión habiendo solicitado a este Departamento que no se autorice la caza en el monte Ulia, dada la vocación de parque periurbano que tiene dicho monte para ambos municipios."

2019ko abenduaren 20an, Eusko Legebiltzarrak 12/2019 Legea, Ehizari buruzko 2011ko martxoaren 17ko 2/2011 Legea aldatzekoa, onartu zuen. Zehatz esan, 27. artikuluko 2. apartatua aldatu zuen. Aldaketa hori dela eta, Foru Aldundiko organo eskudunak ahalmena du ehiza debekatuta dagoen segurtasun-eremuetatik salbuetsirik uzteko 2011ko Legea indarrean sartu aurretik ezarritako lanpostu finkoak.

El 20 de diciembre el Parlamento Vasco ha aprobado la Ley 12/2019, de modificación de la Ley 2/2011, de 17 de marzo, de Caza. En concreto se ha modificado el apartado 2 del artículo 27, de forma que se otorga capacidad al órgano competente de la Diputación Foral la posibilidad de exceptuar de las zonas de seguridad en las que la caza está prohibida aquellos puestos fijos establecidos previamente a la entrada en vigor de la ley del 2011.

Beraz, batetik, Ulia-Mendiolako ingurugiro eta ingurua hondatu ez daitezen, bestetik, Donostiako Udalak bere parajeetan herritarren segurtasuna bermatzeko duen betebeharra betetzeko, eta, azkenik, Foru Aldundiak berak Ulian ehiza galarazteko neurriak hartzeko duen jarrera kontuan hartuta, Udal Gobernuak Gipuzkoako Foru Aldundira jo behar du, arlo horretan eskumena duen organoari eskatzeko berehala indarrik gabe uzteko Ulian eta Mendiolan ezarritako postu finkoetan ehizari eusteko salbuespena, eta irizpide nagusia

Por tanto, a fin de evitar el deteriodo y la degradación del medio y entorno de Ulia-Mendiola, así como por la obligación del ayuntamiento donostiarra de garantizar la seguridad de la ciudadanía en sus parajes, y considerando la misma disposición de la Diputación a tomar medidas en el sentido de impedir la caza en Ulia, el gobierno municipal debe dirigirse a la Diputación de Gipuzkoa para solicitar al órgano competente en esta materia que deje sin efecto de forma inmediata la excepción de mantener la caza en los

izateko segurtasun-eremuetan ehiza debekatzea.

puestos fijos establecidos de Ulia y Mendiola, y que prevalezca el criterio de mantener la prohibición de la caza en las zonas de seguridad.

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzaren 12/2019 Legea dela eta, baliorik gabe uzteko Ehizari buruzko 2011ko martxoaren 17ko 2/2011 Legeak Ulia eta Mendiolan ezarri zituen postu finkoetan ehizari eusteko salbuespena.

Donostia, 2020ko urtarrilaren 10a

Haizea Garay Gallastegui,

Elkarrekin Donostia taldeko zinegotzia”

MOCIÓN ORDINARIA

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa a, de acuerdo a la Ley 12/2019 del Gobierno Vasco, dejar sin validez la excepción de mantener la caza en los puestos fijos de Ulia y Mendiola establecidos previamente a la Ley 2/2011, de 17 de marzo, de Caza.

Donostia, a 10 de enero de 2020

Haizea Garay Gallastegui

Concejala de Elkarrekin Donostia”

Eztabaida hasita, Haizea Garay Gallastegui andreak, Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andreak, Alkate-Udalburuak eta Enrique Ramos Vispo jaunak, parte hartu dute puntu honetan. Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as, D.ª Haizea Garay Gallastegui , D.ª Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego, el Alcalde-Presidente y D. Enrique Ramos Vispo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**PSE-EE TALDEAK 11. GAIARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA AL ASUNTO N.º 11 PRESENTADA POR EL GRUPO PSE-EE.**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 13 – (9) EAJ-PNV, (4) PSE-EE.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 13 – (9) EAJ-PNV, (4) PSE-EE.**

**AURKAKO BOTOAK: 9 - (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 2 - PP.**

**VOTOS EN CONTRA: 9 - (6) EH BILDU, (3)ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 2 - PP**

**11. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 11:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 13 – (9) EAJ-PNV, (4) PSE-EE.**
**AURKAKO BOTOAK: 5 - (2) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 6 - EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 13 – (9) EAJ-PNV, (4) PSE-EE.**
**VOTOS EN CONTRA: 5 - (2) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 6 - EH BILDU.**

**HARTUTAKO ERABAKIAREN BEHIN BETIKO TESTUAREN EGIAZTAGIRIA:**

**CERTIFICADO DEL TEXTO DEFINITIVO DEL ACUERDO ADOPTADO:**

“Udalbatzak, bi mila eta hogeiko urtarrilaren hogeita hamaikan izan zuen osoko bilera ohikoan, ELKARREKIN DONOSTIA taldeak Ulian ehiza galarazteaz aurkeztutako mozio arrunt hau onartu zuen, PSE-EE taldeak egin eta Udalbatzak onartutako zuzenketa bat ere eginda: erabaki zatiko 1. puntua aldatzea. Horrenbestez, hauxe da azkenean onartu zen testua:

“Que el Excelentísimo Ayuntamiento Pleno en Sesión Ordinaria celebrada el día treinta y uno de enero de dos mil veinte, aprobó la siguiente Moción Ordinaria, presentada por el Grupo ELKARREKIN DONOSTIA, sobre la prohibición de la caza en Ulía, que incorpora una enmienda aprobada, presentada por el Grupo Socialistas Donostiarras PSE-EE, de modificación del primer punto de la parte resolutiva, siendo el texto definitivamente aprobado el siguiente:

*“2019ko irailaren 9ko 0090LI/2019 Foru Arauak berriz ere sartu zituen 46 lanpostu Gipuzkoako ohiko pasabide lerro eta postuen erregistroan (horietako 36, Donostiako udalerrian). Horren ondorioz, ehiza itzuli da Uliara eta Mendiolara.*

*“La norma foral 0090LI/2019 de 9 de septiembre del pasado año 2019 volvió a incluir en el registro de líneas y puestos de paso tradicional de Gipuzkoa un total de 46 puestos -36 de ellos en el término municipal de Donostia-, lo cual ha supuesto la vuelta de la caza a Ulia y a Mendiola.*

*Erabaki hori atzera pausoa da Ulia mendia hiri-*

*Este hecho supone un paso atrás en la*

*inguruko parke gisa finkatzeko prozesuan. Gogoratu dezagun 2018ko maiatzean Udalbatzak erabaki zuela Uliako Parkearen Bateragarritasun Planak argi eta garbi islatu behar zuela Uliaren hiri-inguruko parkearen izaera, eta, halaber, biztanleek inguru natural horretaz modu baketsuan gozatzera bideratu behar zituela bertako erabilerak. Ehizaren itzulerak nekez bermatuko du herritarren gozamen baketsua.*

*consolidación del monte Ulia como parque periurbano. Recordemos que en mayo de 2018 el Pleno municipal acordó que el Plan de Compatibilización del Parque de Ulia “debía reflejar de manera inequívoca el carácter de parque periurbano y con ello dirigir los usos en el mismo al disfrute pacífico por la ciudadanía de ese entorno natural”. La vuelta de la caza difícilmente va a garantizar el disfrute pacífico de la ciudadanía.*

*Gainera, interes publikoa dago Ulia-Mendiola eta Ulia-Plata Itsarargia lerroetan ehiza desagertzeko. Interes hori, gainera, agerikoa da: Donostiako herritarrek eta Donostiakoak ez direnek maiz erabiltzen dituzte mendi horretako bideak. Inguru hori aisialdirako eta atsedenerako eremutzat hartzen dute, beren gozamenerako. Bestalde, Ulia ehizarik gabeko eremua izateko interes publiko hori berariaz aditzera eman dute komunikabideetan elkarte ekologistek, bizilagunen elkarteek eta beste erakunde batzuek, hala nola hainbat ikastetxek.*

*Existe además un interés público en la desaparición de la caza en las líneas de Ulia-Mendiola y Ulia-Faro de la Plata, el cual queda manifiesto de hecho en el uso frecuente de la ciudadanía donostiarra y no donostiarra de vías y caminos de este monte, ciudadanía que reconocen en este entorno un área cercana de esparcimiento y ocio para su disfrute. Y por otro lado, este interés publico en que Ulia sea un espacio libre de caza también ha sido declarado expresamente en medios de comunicación por asociaciones ecologistas, asociaciones de vecinos y otras instituciones como colegios.*

*Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2018ko uztailaren 10ean, 401 LI Foru Agindua (GAO, 135. zk., 2018ko uztailaren 13a) argitaratu zuen, 2014ko uztailaren 23ko 423/2014 Foru Agindua aldatzeko (2014ko agindu horren bidez, segurtasun-eremuan armekin ehizatzeko debeku orokorretik kanpo utzi ziren Uliako kostaldeko baimendutako lerroetako postu finkoak, Donostiako eta Pasaiako udalerrietan). 2018ko agindua argitaratu ondoren, Aldundiak adierazi zuen tresna juridikoak landuko zituela, ehiza jarduera ekiditeko. Hala, 2018ko irailaren 18ko 0503 LI/2018 Foru Aginduaren bidez (GAO, 182. zk., 2018ko irailaren 20a) Ulia-Mendiola eta Mendiola-Plata Itsasargia izeneko lerroetako 46 postuak kendu ziren Gipuzkoako ohiko lineen eta pasabideen erregistrotik. Aipatutako 2018ko irailaren 20ko 0503 LI/2018 Foru Aginduak hau dio, besteak beste:*

*La misma Diputación de Gipuzkoa, tras publicar la Orden Foral 401 LI, de 10 de julio de 2018 (BOG nº 135, de 13 de julio de 2018), orden de modificación de la Orden Foral n.º 423/2014, de 23 de julio y por la que se excluía de la prohibición general de caza con armas en la zona de seguridad los puestos fijos pertenecientes a las líneas autorizadas de la zona costera de Ulia, en los términos municipales de San Sebastián y Pasaia, anunció que trabajaría en desarrollar instrumentos jurídicos para evitar que se desarrollase la actividad de la caza. Así, mediante Orden Foral 0503 LI/2018 de 18 de septiembre (B.O.G. nº 182, de 20 de septiembre de 2018) se procedió a la exclusión del Registro de líneas y puestos de paso tradicional de Gipuzkoa los 46 puestos de las líneas denominadas Ulia-Mendiola y Mendiola-Faro de la Plata. En su texto, la referida Orden Foral señala lo siguiente:*

*“Espedientea abian jartzeko arrazoia da ehiza jarduerak eragina duela gune horretan ematen*

*“El inicio del citado expediente se fundamenta en la afección que el ejercicio de la caza tiene*

*diren aisialdiko beste erabileretan. Izan ere, mendi horretara jende asko joaten da biztanle dentsitate handiko herri guneetatik, eta Gipuzkoako ibilbide homologatu garrantzitsuenetakoak elkartzen dira bertan, hala nola GR-121 Talaia, Santiago Bidea eta SL Gi 33Uliako itzulia.*

*sobre otros usos recreativos que confluyen en dichos espacios dada la gran afluencia de visitantes al citado monte al estar el mismo muy cercano a zonas con alta densidad de población y por contar con la existencia de senderos homologados de gran importancia en Gipuzkoa como son el GR-121 Talaia, el Camino de Santiago y el SL Gi 33 Vuelta a Ulia.*

*Egoera horretan, ehiza jarduerak eragin handia du eremu horren gainerako erabiltzaileengan, bai tiroek sortzen duten zaratagatik bai pertsonen segurtasun fisikoagatik.*

*El ejercicio de la caza en este contexto supone una afección considerable para el resto de la ciudadanía usuaria de ese espacio, tanto por el ruido generado por los disparos como por motivos de seguridad física de las personas.*

*Zentzu honetan, aipatu behar da Donostiako eta Pasaiako udalek behin baino gehiagotan azaldu dutela gai horren inguruko kezka, eta Departamentuari eskatu diotela Ulia mendian ehizatzeko baimenik ez ematea, bi udalentzat hiri inguruko parkea baita Ulia mendia."*

*En este sentido, hay que señalar que los Ayuntamientos de San Sebastián y Pasaia, han manifestado en diversas ocasiones su preocupación por esta cuestión habiendo solicitado a este Departamento que no se autorice la caza en el monte Ulia, dada la vocación de parque periurbano que tiene dicho monte para ambos municipios."*

*2019ko abenduaren 20an, Eusko Legebiltzarrak 12/2019 Legea, Ehizari buruzko 2011ko martxoaren 17ko 2/2011 Legea aldatzekoa, onartu zuen. Zehatz esan, 27. artikuluko 2. apartatua aldatu zuen. Aldaketa hori dela eta, Foru Aldundiko organo eskudunak ahalmena du ehiza debekatuta dagoen segurtasun-eremuetatik salbuetsirik uzteko 2011ko Legea indarrean sartu aurretik ezarritako lanpostu finkoak.*

*El 20 de diciembre el Parlamento Vasco ha aprobado la Ley 12/2019, de modificación de la Ley 2/2011, de 17 de marzo, de Caza. En concreto se ha modificado el apartado 2 del artículo 27, de forma que se otorga capacidad al órgano competente de la Diputación Foral la posibilidad de exceptuar de las zonas de seguridad en las que la caza está prohibida aquellos puestos fijos establecidos previamente a la entrada en vigor de la ley del 2011.*

*Beraz, batetik, Ulia-Mendiolako ingurugiro eta ingurua hondatu ez daitezen, bestetik, Donostiako Udalak bere parajeetan herritarren segurtasuna bermatzeko duen betebeharra betetzeko, eta, azkenik, Foru Aldundiak berak Ulian ehiza galarazteko neurriak hartzeko duen jarrera kontuan hartuta, Udal Gobernuak Gipuzkoako Foru Aldundira jo behar du, arlo horretan eskumena duen organoari eskatzeko berehala indarrik gabe uzteko Ulian eta Mendiolan ezarritako postu finkoetan ehizari eusteko salbuespena, eta irizpide nagusia*

*Por tanto, a fin de evitar el deteriodo y la degradación del medio y entorno de Ulia-Mendiola, así como por la obligación del ayuntamiento donostiarra de garantizar la seguridad de la ciudadanía en sus parajes, y considerando la misma disposición de la Diputación a tomar medidas en el sentido de impedir la caza en Ulia, el gobierno municipal debe dirigirse a la Diputación de Gipuzkoa para solicitar al órgano competente en esta materia que deje sin efecto de forma inmediata la excepción de mantener la caza en los*

*izateko segurtasun-eremuetan ehiza debekatzea.*

*puestos fijos establecidos de Ulia y Mendiola, y que prevalezca el criterio de mantener la prohibición de la caza en las zonas de seguridad.*

*MOZIO ARRUNTA*

*“Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari azter dezala lege aldetik bideragarri den eta aplika ote daitekeen Eusko Jaurlaritzaren 12/2019 Legea, zeinak ezartzen baitu baliorik gabe utzi litekeela Ehizari buruzko 2011ko martxoaren 17ko 2/2011 Legeak Ulian eta Mendiolan ezarri zituen ehiza postu finkoak mantentzeko salbuespena”*
====================================

*MOCIÓN ORDINARIA*

*“El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa a analizar la viabilidad jurídica y posible aplicación, en su caso, de aplicar la Ley 12/2019 del Parlamento Vasco, que establece la posibilidad de dejar sin validez la excepción de mantener los puestos fijos de caza en Ulia y Mendiola establecidos previamente a la Ley 2/2011 de 17 de marzo, de Caza”.*
====================================

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Egiaztagiri hau egin, izenpetu eta zigilatu dut, Alkatetzak aginduta eta onetsita, Donostian, bi mila eta hogeiko otsailaren zazpian.

Y para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta Certificación, visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a siete de febrero de dos mil veinte.

ALKATEAK O. E. /
V. º B. º DEL ALCALDE,

Eneko Goia Laso

-----------

**II.2**

**KONTROL MOZIOAK**

**II.2**

**MOCIONES DE CONTROL**

**II.2.1. Kontrol mozioa, Elkarrekin Donostia Taldeak aurkeztua, indarkeria matxisten biktimen oroitzapen, aintzatespen eta konponbidea dela eta.**

“Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramaile Aitzole Aranetak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak jartzen duena aintzakotzat hartu eta indarkeria matxisten biktimen oroitzapen, aintzatespen eta konponketari buruzko kontrol mozio hau aurkeztu du, udalbatzan eztabaidatzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Memoria kolektibo eta historikoaren, aintzatespenaren eta konponketaren arloko politikek irudimen kolektiboaren arazo politiko eta estrukturaltzat jotzen dituzte giza eskubideen urraketak.

Aurrerapen handiak egin dira indarkeria matxistak eskubideen urraketatzat aitortzeko. Hala ere, orain arte ez da lortu biktimak oroimen kolektiboan edo historikoan kokatzea, nahiz eta azken horrek eraldatze ahalmen handia izan.

Sarritan, gizarte zibilak bultzatu izan ditu arlo horretako ekintzak, erakundeek behar adinako laguntzarik eman gabe, askotan. Aitortu dezagun zenbait gobernuk ere egin dituela horrelako ekintzak, baina, era berean, izaera puntuala, zatikatua, irismen txikikoa eta beren artean artikulaziorik gabea izatera jotzen dutela.

Horiek horrela direla, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

**II.2.1. Moción de control, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa a memoria, reconocimiento y reparación de víctimas de violencia machistas.**

“Aitzole Araneta, portavoz del Grupo municipal Elkarrekin Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción de control para su debate en el pleno, sobre memoria, reconocimiento y reparación de víctimas de violencias machistas.

JUSTIFICACIÓN

Las políticas en el ámbito de la memoria colectiva e histórica, reconocimiento y reparación sitúan las vulneraciones de derechos humanos como una cuestión política y estructural en el imaginario colectivo.

Se han realizado grandes avances para el reconocimiento de las violencias machistas como una vulneración de derechos. Sin embargo, no se ha conseguido hasta ahora situar a las víctimas en la memoria colectiva ni histórica, a pesar del potencial que esta última tiene para transformar.

A menudo, ha sido la sociedad civil la que ha impulsado actuaciones en este sentido, en muchos casos sin apoyo suficiente por parte de las instituciones. Debemos reconocer que desde diferentes gobiernos también se han llevado a cabo este tipo de acciones, pero también que tienden a tener un carácter puntual, fragmentado, de corto alcance y sin articulación entre sí.

Por todo lo anterior, se formula la siguiente:

MOCIÓN de CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio indarkeria matxisten biktima eta handik bizirik atera diren guztiak aintzakotzat hartzeko, indarkeria matxisten inguruko memoria kolektiboa eta memoria historikoa eraikita, giza eskubideen urraketa horretarako berariazko oroimen-politika publiko baten bidez, konponketa eta aintzatespen ekintzak ere izango dituen politika, hiriko mugimendu feministaren eta oroitzapen politiketan eta programetan espezializatutako elkarteen parte-hartzearekin.

1. El pleno del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastian insta al Gobierno municipal a reconocer a las víctimas y supervivientes de violencias machistas en toda su diversidad construyendo memoria colectiva y memoria histórica en torno a las violencias machistas, a través de una política pública de memoria específica para esta vulneración de derechos humanos, que incluya acciones de reparación y de reconocimiento, con la participación del movimiento feminista de la ciudad y asociaciones especializadas en políticas y programas memorialistas.

2. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio, batetik, udalerriko gizarte eta kultur etxeetan berdintasuneko eta indarkeria matxistarik gabeko bizitzei buruzko sentsibilizazio-jarduerak egitea bultzatzeko, indarkeria matxisten biktimen eta handik bizirik atera diren pertsonen lekukotzak entzutea ere sartuta jarduera horietan; eta, bestetik, indarkeria mota horien oroitzapenean eta konponketan espezializatutako erakundeekin trukea ere egiteko.

2. El pleno del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastian insta al Gobierno municipal a promover actividades de sensibilización para la igualdad y vidas libres de violencias machistas en los centros cívicos y culturales del municipio que incorporen la escucha de testimonios de víctimas y sobrevivientes de violencias machistas, y el intercambio con organizaciones especializadas en memoria y reparación de estas violencias.

Donostia, 2020ko urtarrilaren 24a

Donostia, 24 de Enero de 2020

Izpta.: Aitzole Araneta,
Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramailea"

Fdo.: Aitzole Araneta
Portavoz del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia".

Aitzole Araneta Zinkunegi andreak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto la señora D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**
**ABSTENTZIOAK: 1 EAJ/PNV PLENO**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**
**ABSTENCIONES: 1 EAJ/PNV POR**

**ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.**

---------------

**II.2.2. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, Donostiako saltoki txikien egoerari buruzkoa.**

”Borja Corominas Fisas Talde Popularreko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluaren babespean, Donostiako saltoki txikien egoerari buruzko KONTROL MOZIO hau aurkeztu dio Eneko Goia alkateari, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Gure Udal Taldeak aurkeztutako interpelazioari erantzuteko, Pertsonentzako Zerbitzuen aurreko batzordean, Ekonomia Bultzatzeko, Enpleguko, Merkataritzako, Ostalaritzako eta Turismoko zinegotzi Ernesto Gascok emandako datuen arabera, Donostian 228 tokiko negozio desagertu dira azken bost urteotan, alegia, dauden lokalen %8.

On line erosketen hazkundeak, kontsumo ohituren aldaketek eta merkataritza gune handien eraginak Donostian 734 establezimendu galtzea eragin dute 2008tik, eta, azken hamarkadan, %21,7ko jaitsiera izan da. 2018an, txikizkako 2.653 establezimendu zeuden aktibo, urtetik urterako %3,8ko jaitsiera eta, azken urtean, 106 establezimenduren galera garbia.

Txikizkako merkataritza beti izan da jarduera ekonomiko garrantzitsua Donostian -8.993 pertsonentzako enplegua sortzen du hiriko

**II.2.2. Moción de control, presentada por el grupo PP, sobre la situación del pequeño comercio de la ciudad.**

“Borja Coromias Fisas Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, como consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Servicios a las Personas, sobre la situación del pequeño comercio de la ciudad.

JUSTIFICACIÓN

Según los datos aportados por el Concejal de Impulso Económico y Comercio, D. Ernesto Gasco, en la pasada Comisión de Servicios a las Personas ante la interpelación presentada por nuestro Grupo Municipal, en Donostia han desaparecido 228 negocios locales en los últimos cinco años, lo que supone un 8% del número de locales que existen en nuestra ciudad.

El crecimiento de las compras online, los cambios en los hábitos de consumo y el impacto de los grandes centros comerciales han provocado en nuestra ciudad una pérdida de 734 establecimientos desde 2008, caída del 21,7% en la última década. En 2018 hay activos 2.653 establecimientos minoristas, un descenso del 3,8% interanual y una pérdida neta de 106 establecimientos en el último año.

El comercio minorista siempre ha sido una importante actividad económica en San Sebastián -el empleo que genera el comercio

txikizkako merkataritzak—, baina krisi ekonomikoak, kultura aldaketek eta sektorearen bilakaerak bultzatuta, denden %14 galdu da bost urtean.

minorista de la ciudad es de 8.993 personas-, pero la crisis económica, los cambios culturales y la evolución propia del sector ha hecho que la ciudad pierda un 14% de sus tiendas en cinco años.

Lau urtean, aldaketa nabarmenak pairatu ditu merkataritzak. Elementu eta egoera asko handi geratzen zaizkio merkatari txikiari: ordutegi askatasuna eta merkealdien malgutasuna, adibidez. Baina baita hiriko alokairuen kostua ere. Izan ere, gastu finkoak sektorearentzako zama bihurtzen dira, bereziki, denboralditik kanpo, klimatologiak laguntzen ez duenean. Egoera horri hiriko auzoetan hiriaren erdiguneak eskaintzen duen merkataritzaren errotazioa ez dela gertatzen gehitzen badiogu, arazoa are larriagoa da.

En cuatro años el comercio ha sufrido transformaciones muy importantes. Hay muchos elementos y situaciones que le quedan grandes al pequeño comerciante: la libertad de horarios y la flexibilidad de las rebajas, por ejemplo. Pero también el coste de los alquileres en la ciudad, con unos gastos fijos que se convierten en una losa para el sector, especialmente cuando fuera de temporada no acompaña la climatología. Si a este panorama se le añade que en los barrios de la ciudad no se produce la rotación del comercio que ofrece el Centro de la ciudad, el problema se agrava aún más.

Ekonomia Bultzatzeko, Enpleguko, Merkataritzako, Ostalaritzako eta Turismoko zinegotziak atzoko batzordean iragarri zituen neurriak osatzeko, Talde Popularrak honako hau aurkeztu du:

Para completar las medidas que el Concejal de Impulso Económico anunció ayer en Comisión , el Grupo Popular presenta la siguiente

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio saltoki txikiak sustatzeko neurriak osa ditzala, eta, horretarako, asmo handiagoko plan bat bultzatu behar du, sektorearen baldintzak hobetzeko, laguntza publiko gehiago izateko, egungo kargen malgutasuna areagotzeko eta saltoki tradizionaletan kontsumoa sustatzeko tokiko eta nazioarteko kanpaina bat egiteko.

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a completar las medidas de impulso al Pequeño comercio impulsando un plan más ambicioso que contemple mejoras en las condiciones del sector, mayores ayudas públicas, una mayor flexibilidad en los gravámenes actuales y una campaña local e internacional de fomento del consumo en los comercios tradicionales.

2. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio merkataritza posizionamendua, lehiakortasuna eta dinamizazioa hobetzeko ekintzak bultza ditzala, lankidetza sektorialaren eta instituzionalaren bidez.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a impulsar acciones que mejoren el posicionamiento, la competitividad y la dinamización comercial a través de la

cooperación sectorial e institucional.

3. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio sektorea bultzatzeko, merkataritza txikiarekin zerikusia duten eragile guztien arteko koordinazioa eta lankidetza hobetzeko.

3. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a mejorar la coordinación y cooperación con todos los agentes relacionados con el Pequeño comercio en el impulso del sector.

4. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio bereziki sentibera izatea eta kontuan har ditzala bere edozein jarduera publikotan merkataritza tradizionalak dituen zailtasunak, haren egungo egoera ez larriagotzeko.

4. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a sesr especialmente sensible y contemplar las dificultades por las que atraviesa el comercio tradicional en cualesquiera de sus actuaciones públicas para no agravar ni perjudicar más su situación actual.

Donostian, 2020ko urtarrilaren 23an.

En San Sebastián, a 23 de enero de 2020

Borja Corominas Fisas
Udal Talde Popularraren bozeramailea”

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular”.

Eztabaida hasita, Mikel Lezama Zubeldia jaunak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Jon Markel Ormazabal Gaztañaga jaunak eta Enrique Ramos Vispo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Mikel Lezama Zubeldia, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D. Jon Markel Ormazabal Gaztañaga y D. Enrique Ramos Vispo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**2. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 2:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 2 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (4)**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 2 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (4)**

PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.

PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.

**2. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 2:**

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) PP.
AURKAKO BOTOAK: 13 – (9) EAJ-PNV, (4) PSE-EE.
ABSTENTZIOAK: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) PP.
VOTOS EN CONTRA: 13 – (9) EAJ-PNV, (4) PSE-EE.
ABSTENCIONES: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA.

**2. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 2:**

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (2) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 13 – (9) EAJ-PNV, (4) PSE-EE.
ABSTENTZIOAK: 0.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (2) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 13 – (9) EAJ-PNV, (4) PSE-EE.
ABSTENCIONES: 0.

**2. KONTROL MOZIOAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 4 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 2:**

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (2) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 13 – (9) EAJ-PNV, (4) PSE-EE.
ABSTENTZIOAK: 0.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (2) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 13 – (9) EAJ-PNV, (4) PSE-EE.
ABSTENCIONES: 0.

---------------

**II.2.3. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, Donostian barrutiak sortzeari buruzkoa.**

”Borja Corominas Fisas Talde Popularreko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluaren babespean, Donostian barrutiak sortzeari buruzko kontrol mozio hau aurkeztu dio eneko goia laso alkate jaunari, zerbitzu orokorren batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Urtetik urtera, legegintzaldiz legegintzaldi, 2003ko Toki Administrazioa modernizatzeko Legea sortu zenetik, ez da bete udal administrazioa barrutietan deszentralizatzeko helburua. Herritarren parte hartzea erraztu eta erabakiak batera eta berdintasunez hartzeko gaitasuna ematen du organo horrek, Donostian aurreikusitako lau barrutietatik bakarra sortu baita.

2015eko martxoaren 26an, Donostiako Barrutien Organo Araudia onetsi zen. Araudi horretako Xedapen Gehigarrian aurreikusten zenez, Ekialdeko Barrutia abiaraziko zen legegintzaldia bukatu baino lehen, eta gainerakoak 2015-2019 legegintzaldian abiaraziko ziren. Ekialdeko Barrutiaren kasuan, aurreikuspen hori 2018ko irailean bete zen.

Ia 5 urte igaro dira onespen hura egin zenetik, eta 16 urte Hiri Handien Legea sortu zenetik – udalen kudeaketa modernizatzea aurreikusten

**II.2.3. Moción de control, presentada por el grupo PP, sobre la creación de los Distritos de la ciudad.**

“Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo artículo 98 del reglamento orgánico del pleno, presenta la siguiente moción de control consecuencia de la interpelación plasmada en la Comisión de Comisión de Servicios Generales, la siguiente Moción al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, sobre la creación de los Distritos de la ciudad.

JUSTIFICACIÓN

Año tras año, legislatura tras legislatura, desde que se creara la Ley para la modernización de la Administración local de 2003, se incumple el objetivo de descentralizar la administración municipal en favor de los distritos, órgano que facilita la participación ciudadana y le capacita en la toma de decisiones, de forma conjunta e igualitaria, puesto que tan solo se ha creado un distrito de los cuatro previstos en Donostia-San Sebastián.

El 26 de marzo de 2015 se aprobó el Reglamento Orgánico de Distritos que en su Disposición Adicional preveía la puesta en marcha del Distrito Este en lo quedaba de legislatura y los demás en la legislatura 2015-2019. Aquella previsión se cumplió en el caso del Distrito Este en septiembre de 2018.

Transcurridos casi 5 años de aquella aprobación y 16 años desde la creación de la Ley de Grandes ciudades, que contemplaba la

zen, udalerria barrutietan banatuta–, baina Donostiako hiritarretatik, Ekialdeko auzoetako hiritarrek baino ez dute hurbiltze eta partaidetza politikak sortzeko beharrezkoa den tresna.

Ez da begiztatu ere egiten Udalak gainerako barrutiak -Erdialde-hegoa, Mendebaldea eta Ipar-ekialdea– abiarazteko aurreikuspena. Horixe ondorioztatu ahal izan zen, antza, Gobernuak batzordean egindako iruzkinen batetik.

Geure arauak ere ez ditugunez betetzen -erakunde orotan funtsezko eta lehentasunezko gaia izanik– eta hiritarren konparaziozko bidegabekeria egiten denez, haiek bizi diren tokiaren arabera, Talde Popularrak azaroan aurkeztutako interpelazioaren ondoriozko honako hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA:

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Legean aurreikusitakoa bete dezala eta falta diren hiru barrutiak sortzen hasi eta Erdialde-hegoa, Mendebaldea eta Ipar-ekialdea barrutiak abian jartzeko epeak eta baliabideak ezarri ditzala.

Donostian, 2020ko urtarrilaren 23an.

Borja Corominas Fisas,
Alderdi Popularraren udal taldearen bozeramailea”

modernización de la gestión de los ayuntamientos con la división del municipio en distritos, tan solo un conjunto de ciudadanos de Donostia adscritos a los barrios del Este de la ciudad gozan de un instrumento necesario para crear políticas de proximidad y participación ciudadana.

Y, por último, porque no hemos tenido conocimiento de este expediente informativo y no hemos visto que por parte del concejal responsable se tenga intención de proceder a la revisión del mismo.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

Es por ello por lo que la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, Ekintza ikastolako ume eta erabiltzaile guztien segurtasunerako, berma dezala 2020an atzeko magala egonkortzeko neurriak jasoko dituen proiektua egin eta gauzatzea.

1.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que, en aras de la seguridad de todos los niños, niñas, usuarios y usuarias de la ikastola Ekintza, garantice que en este año 2020 se redactará y ejecutará un proyecto para estabilizar la ladera situada en la parte trasera de dicho centro.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari ezarri ditzala dagozkion lehengoratze-neurri eta neurri konpentsatzaileak, basoberritze-proiektua egin dezala eta, landatzeko garaiak kontuan izanik, beranduenez 2020ko abenduan erein ditzala agindutako zuhaitzak.

2.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno Municipal a que adopte las medidas de restauración y compensación oportunas, elabore un proyecto de reforestación y, a más tardar en diciembre de 2020, teniendo en cuenta las épocas de plantación, proceda a la siembra de los árboles correspondientes.

3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal

3.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno

Gobernuari basoberritze-proiektuaren zirriborroa gainerako udal taldeekin, Ingurumen Kontseiluarekin, Haritzalde eta Eguzkirekin partekatu dezala, jasotzen den landaredia egokia den aztertzeko.

Municipal a que comparta con el resto de grupos municipales, el Consejo de Medio Ambiente, Haritzalde y Eguzki el borrador del proyecto de reforestación citado, con el fin de analizar la idoneidad de la vegetación propuesta en él.

4.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari egin dezala informazio-espediente berri bat eta, behar bada, behar den espediente zigortzailea, eta horren bidez ezar diezaiola magalaren jabeari behar duen zigorra; betiere, ondorioztatzen bada ez dela agindua edo indarrean den legedia bete.

4.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno Municipal a que elabore un nuevo expediente informativo y, en su caso, el expediente sancionador correspondiente, imponiendo al titular de la ladera la sanción que proceda, siempre que se deduzca que no se ha cumplido el mandato dictado o la legislación vigente.

Donostian, 2020ko urtarrilaren 24an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia”.

Donostian, 2020ko urtarrilaren 24an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego,
EH BILDU udal taldeko zinegotzia”.

Eztabaida hasita, Haizea Garay Gallastegui andreak, Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andreak eta Enrique Ramos Vispo jaunak parte hartu dute puntu hauetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en estos puntos el/las señor/as D.ª Haizea Garay Gallastegui, D.ª Garbiñe Alkiza López de Samaniego y D. Enrique Ramos Vispo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**9. KONTROL MOZIOAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 9:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (2) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 13 - (9) EAJ-PNV, (4) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (2) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 13 - (9) EAJ-PNV, (4) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**14. KONTROL MOZIOAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 14:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (2) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 13 - (9) EAJ-PNV, (4) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (2) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 13 - (9) EAJ-PNV, (4) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.10. Kontrol mozioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, Anoetako obretan hitzarmen kolektiboa ez betetzea dela eta.**

”Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Haizea Garay Gallasteguik, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, OGASUN BATZORDEAN horri buruzko interpelazioa egin ondoren.

JUSTIFIKAZIOA

Anoeta Zelaia Envolvente aldi baterako enpresa elkarteak eta Anoeta Zelaia Obra Civil e Instalaciones aldi baterako enpresa elkarteak –Anoetako estadioa eraberritzeko eta handitzeko lehiaketaren esleipendunak biak–, ez dute bete obrak Gipuzkoako Eraikuntzaren Hitzarmen Kolektiboa betez egiteko baldintza. Lan ikuskaritzaren froga argiak daude, erakusten dutenak aldi baterako enpresa elkarteko azpikontrata askok ez dietela ordaindu langileei zegokien soldata..

**II.2.10. Moción de control, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa al incumplimiento del convenio colectivo en las obras de Anoeta.**

“Haizea Garay Gallastegui, concejala del Grupo municipal Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL tras la interpelación correspondiente en la COMISIÓN DE HACIENDA.

JUSTIFICACIÓN

La UTE Anoeta Zelaia Envolvente y la UTE Anoeta Zelaia Obra Civil e Instalaciones UTE, adjudicatarias del concurso para la reforma y ampliación del Estadio de Anoeta, no han cumplido con la condición estipulada de observar y ejecutar las obras bajo el Convenio Colectivo de la construcción de Gipuzkoa. Existen pruebas inequívocas y resoluciones de la inspección de trabajo que demuestran que numerosas subcontratas de la UTE no han pagado a sus trabajadores el salario que les correspondía.

Estadioko obretan ez-betetze hori izan denez, langileen eskubide horren aldeko ekintza sindikalak izan dira, horien artean ELArenak. Lan Ikuskaritzaren aktek salaketa horiek berresten dituzte, eta Precoren ebazpenetatik ondorioztatzen da aipatutako ABEEek sei eta zazpi milioi euro artean aurreztu ahal izan dituztela, soldaten eta ordaindu gabeko gizarte kotizazioen bidez. Gogorarazi behar dugu ABEEek diru publikoa jaso dutela obrarako, eta diru horrekin ordaindu behar dietela langileei, Gipuzkoako Eraikuntzaren Hitzarmena aplikatuz. Hala egin ez dutenez, legez kanpo eskuratu dute finantzaketa publikoa.

Dicho incumplimiento al ejecutar las obras del Estadio ha motivado acciones sindicales en defensa de ese derecho de los trabajadores, entre ellas del sindicato ELA. Las actas de la Inspección de trabajo vienen a ratificar estas denuncias y, de las resoluciones del PRECO se desprende que las UTEs citadas se han podido ahorrar entre 6 y los 7 millones de euros bajo la forma de salarios y cotizaciones sociales no pagadas. Recordamos que las UTEs han estado recibiendo dinero público para la obra, dinero con el que deben pagar a sus trabajadores aplicando el convenio de la construcción de Gipuzkoa. Al no haberlo hecho de esta forma se han apropiado ilegalmente de la financiación pública.

Anoeta Kiroldegia udal sozietatea da kontratua betetzeko eskaeraren arduraduna, obraren jabea baita. Langileen Estatutuaren 42. artikuluak dio enpresaburu nagusiak, hau da, Anoeta Kiroldegiak modu solidarioan erantzun behar diela kontratistek eta azpikontratistek beren langileekin dituzten soldata betebeharrei, eta hori mandatua amaitu eta hurrengo urtean egin behar dutela. Betebehar hori ez da betetzen kontratarekin adostutakoa ordainduz, baizik eta, esaterako, Auzitegi Nagusiaren 2002ko uztailaren 9ko epaiak dioen bezala, ziurtatu behar du adostutako hori azpikontratisten katearen bukaera arte betetzen dela. Beraz, egiaztatu behar du langileek jaso dutela zor zitzaien zenbatekoa.

La responsable de exigir el cumplimiento del contrato es la sociedad municipal Anoeta Kiroldegia, como dueña de la obra. El artículo 42 del Estatuto de los Trabajadores señala que el empresario principal, es decir AK, debe responder solidariamente de las obligaciones de naturaleza salarial contraída por los contratistas y subcontratistas con sus trabajadores y ello durante el año siguiente a la finalización del encargo. Esta obligación no se cumple pagando lo acordado con la contrata sino que, como dice por ejemplo la sentencia del Tribunal Superior de 9 de julio de 2002, hay que asegurar que se cumple hasta el final de la cadena de los subcontratistas, por lo que hay que comprobar que los trabajadores han percibido las cantidades adeudadas.

Beraz, Anoeta Kiroldegiak deskontatu egin beharko luke soldata zuzenaren eta okerraren arteko aldeari dagokion zenbatekoa, azpikontrata bakoitzean egiaztatutakoarekin bat, eta zenbateko hori langileei aplikatu, harik eta ABEEk frogatzen duen arte soldata zuzena ordaindu diola langile bakoitzari. Eta entitate horrek egin duen gauza bakarra izan da 15.000

AK debería, por tanto, descontar el montante equivalente a la diferencia entre el salario correcto y salario erróneo constatado puntualmente en cada subcontrata aplicándolo a todos sus trabajadores, hasta que la UTE demuestre, para cada trabajador, que se ha pagado el salario correcto. Y la actuación de esta entidad se ha reducido a

euroko zehapen ziztrin bat jartzea aldi baterako enpresa elkarteei, Gipuzkoako Eraikuntzaren Hitzarmen Kolektiboa betetzen ari zirela erakusten zuten datuak ez emateagatik TAX Economistas y Abogados enpresari (Anoeta Kiroldegiak obren kontratazioa kontrolatzeko kontratatutako enpresa), eta ohartaraztea hilabeteko epean erregularizatu behar zituztela nominak, eta Anoeta Kiroldegiari horien kopia emanda egiaztatu hori.

Anoeta Kiroldegiaren Administrazio Kontseiluak erabaki du alegazioak jartzeko epe bat ematea enpresari, AK administrazio bat balitz bezala, baina, horrela, ezer egin gabe luzatu du epea, eta ABEEei aukera eman die kontratua ez betetzen jarraitzeko. Modu horretara, arazoa konpondu beharrean, luzatzen ari da.

Azkenik, 2019ko ekainaren 17an, Anoeta Kiroldegiko Kontseiluak ezetsi egin zituen aurkeztutako alegazioak, eta berretsi egin zuen bi ABEEek nominak erregularizatzeko eta eskatutako dokumentazioa aurkezteko duten betebeharra. Gaineratu zuen, dokumentazioa aurkeztu ezean, oker ordaindu direla ulertuko dela, eta, beraz, osorik ordaintzeko eskatuko dela.

Lau hilabete baino gehiago igaro dira ekainetik, eta aldi baterako enpresa elkarteek ez dute egoera erregularizatu; nominak entregatu gabe jarraitzen dute, eta, beraz, oraindik ere ez dute betetzen Anoeta Kiroldegiarekin duten kontratua.

Anoeta Kiroldegiak bi ABEEekin duen kontratua arautzeko baldintza ekonomiko-administratiboen agirian, eta, zehazki, 24. klausulan, kontratari ez-betetzeengatik zer zehapen jar dakizkiokeen arautzen da; beraz,

imponer una ridícula sanción de 15.000 euros a las UTEs, por no proporcionar los datos que demostraran que estaban incumpliendo con el Convenio Colectivo de la construcción de Gipuzkoa- Convenio colectivo a TAX Economistas y Abogados (empresa encargada por AK para controlar la contratación en las obras), y a conminarles a que procedieran a regularizar las nóminas afectadas en el plazo de un mes, aportando a AK copia de las mismas.

El Consejo de AK en su decisión de otorgar a la empresa un plazo de alegaciones, como si AK fuera una administración, ha posibilitado alargar el plazo sin hacer nada, dando la oportunidad a las UTEs de seguir incumpliendo con el contrato. De esta forma, en lugar de resolver el problema, lo está alargando en el tiempo.

Finalmente el 17 de junio de 2019 el Consejo de AK desestima las alegaciones presentadas, de forma que se ratifica la obligación de ambas UTE de regularizar las nóminas afectadas y de entregar la documentación requerida. Se añade que en el caso de no entregar dicha documentación "se entenderá que han sido pagadas indebidamente por lo que se exigirá su abono completo".

Desde junio hasta ahora han pasado más de cuatro meses y las UTEs no han regularizado la situación; siguen sin entregar las nóminas y, por tanto, incumpliendo el contrato con AK.

En el Pliego de condiciones económico-administrativas que rige el contrato que liga a AK con ambas UTEs, y en concreto en la clausula 24, se regulan las penalizaciones que se pueden imponer a la contrata por

kontratua behin eta berriz betetzen ez bada, Anoeta Kiroldegiak, alde bakarretik, 10.000 euroko zehapen bat ere jar diezaieke ABEEei ez-betetzea zuzentzeko behar izan duen egun bakoitzeko.

incumplimientos, de forma que, ante el incumplimiento reiterado del contrato AK puede imponer unilateralmente a las UTEs afectadas una penalidad de 10.000 euros por cada día que tarde en subsanar el incumplimiento.

Esan dugun bezala, lan honek dirulaguntza publiko handiak izan ditu, zehazki 10 milioi Eusko Jaurlaritzaren kontura, eta 4 milioi Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontura; beraz, erakunde horiek kontratuaren klausula guztiak oso-osorik betetzen direla kontrolatu behar dute, eta hala egiteko eskatu behar diete enpresa esleipendunei. Obrarako milioika euro diru publiko ematen duten erakunde gisa, uste dugu gutxienez informazioa jaso behar dutela eta laneko ikuskaritzaren ebazpenen eta egiaztatu diren ez-betetzeen berri izan behar dutela.

Como hemos indicado, esta obra cuenta con importantes subvenciones públicas, en concreto 10 millones a cargo del Gobierno Vasco y 4 de la Diputación Foral de Gipuzkoa, por lo que esas instituciones deben controlar y exigir el cumplimiento íntegro de todas las cláusulas del contrato a las empresas adjudicatarias. Como instituciones que dedican millones de euros dinero público a la obra, consideramos que al menos deben ser informadas y tener conocimiento de las resoluciones de la inspección de trabajo y de los incumplimientos constatados.

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari jardun dezala Anoeta Kiroldegiaren barruan (AK), Anoeta Zelaia Envolvente ABEEari eta Anoeta Zelaia Obra Civil e Instalaciones ABEEari langileen nominak erregulariza ditzatela eskatzeko, Anoeta Kiroldegiaren Administrazio Kontseiluak 2019ko ekainaren 15ean eta 17an hartutako erabakietan eskatzen den moduan.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari jardun dezala Anoeta Kiroldegiaren barruan, eta, prebentzioz eta ABEEak erakutsi arte langile guztiek kobratu dutela indarrean dagoen hitzarmenaren araberako soldata, ken diezaiola ABEEari bidezko soldataren eta okerreko soldataren arteko aldeari dagokion zenbatekoa ordaindutako preziotik, azpikontrata bakoitzean egiaztatua, eta aplika diezaiela zenbateko hori

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a actuar en el seno de Anoeta Kiroldegia (AK) para exigir a las UTE Anoeta Zelaia Envolvente y la UTE Anoeta Zelaia Obra Civil e Instalaciones regularizar las nóminas de sus trabajadores en el sentido requerido por las decisiones del Consejo de Administración de AK de fecha 15 de enero de 2019 y 17 de junio de 2019.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastian insta al gobierno municipal a que actúe en AK para que, preventivamente y en tanto la UTE no demuestre que todos y cada uno de los trabajadores ha cobrado correctamente su salario según el Convenio vigente, descuente del precio pagado a la UTE, el montante equivalente a la diferencia entre el salario correcto y salario erróneo constatado puntualmente en cada

langileei.

subcontrata, aplicándolo a todos sus trabajadores.

3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari har ditzala neurriak Anoeta Kiroldegia sozietatearen barruan, sinatutako kontratua betearazteko.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a tomar medidas dentro de la sociedad AK para hacer cumplir el contrato firmado.

4. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari jardun dezala Anoeta Kiroldegia sozietatearen barruan, eta aplika ditzala 10.000 euro arteko penalizazioak kontratua arautzen duen baldintza agiriko 24. klausulan jasotako ez-betetze egun bakoitzeko.

4. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a actuar dentro de la sociedad AK para aplicar las penalizaciones de hasta 10.000 euros por día de incumplimiento que contempla la cláusula 24 del Pliego que regula el contrato.

5. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari eman diezaiela Eusko Jaurlaritzari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari Anoeta estadioko obren esleipena duen ABEEak egindako ez-betetzeen berri.

5. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a informar al Gobierno Vasco y a la Diputación Foral de Gipuzkoa de los incumplimientos de la UTE adjudicataria de las obras del estadio de Anoeta.

Donostia, 2020ko urtarrilaren 24a

Haizea Garay Gallastegi
Elkarrekin Donostia taldeko zinegotzia.”

Donostia, de 24 de enero de 2020

Haizea Garay Gallastegui
Concejala de Elkarrekin Donostia”.

Eztabaida hasita, Haizea Garay Gallastegui andreak, Reyes Carrere Zabala andreak eta Martin Ibabe Eceiza jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Haizea Garay Gallastegui, D.ª Reyes Carrere Zabala y D. Martin Ibabe Eceiza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 13 - (9) EAJ-PNV, (4) PSE-EE.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 13 - (9) EAJ-PNV, (4) PSE-EE.**

**ABSTENTZIOAK: 2 – PP.**

**ABSTENCIONES: 2 – PP.**

---------------

**II.2.11. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Altzako herria parkeko estalpearekin Udal Gobernuak erakutsi duen kudeaketa eskasari buruzkoa.**

**II.2.11. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la escasa gestión demostrada por el Gobierno Municipal con la cubierta del parque Harria de Altza.**

”Zigor Etxeburua Urbizuk, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2020ko urtarrilaren 22an Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

“Zigor Etxeburua Urbizu, concejal del grupo EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN, para que sea tratada por el Pleno. Esta moción es consecuencia de la interpelación tratada en la Comisión de Espacios Públicos el 22 de enero de 2020.

JUSTIFIKAZIOA

Altzako Harria (Arriaga) parkean estalpea 2018an bukatu zuen Udalak, urtebeteko atzerapena izan ondoren. Aurretik eta geroztik ere, hainbat arazo sortu dira egitura berri horren inguruan.

2016ko urrian, Udal Gobernuak prentsaren bidez ezagutarazi zuen Harria parkean gune estali hori jartzeko lanak egingo zituela eta 2017ko martxorako eginda egongo zela. Hasieratik bertatik, ordea, ez zen bete Udal Gobernuak iragarritakoa, kontratazio espedientea eta pleguak ez baitziren onartu 2017ko apirilaren 25era arte.

Lanen esleipena LURGOIEN S.A.U. enpresari egin zitzaion, eta lau hilabeteko epea jarri zen lanak bukatzeko. Esleipena egin eta bost hilabete geroago, ordea, Harria parkeko gune estalia egin gabe zegoen. Bizilagunen arabera,

JUSTIFICACIÓN

El Ayuntamiento finalizó en 2018 la cubierta del parque de Harria (Arriaga), es decir, con un año de retraso. Esta estructura se ha visto afectada por diversos problemas, tanto antes de su ejecución como una vez finalizada.

En octubre de 2016, el Gobierno Municipal dio a conocer, mediante la prensa, que se iban a realizar las obras para la instalación de este espacio cubierto en el parque de Harria y que estas estarían finalizadas para marzo de 2017. Sin embargo, no se ha cumplido lo prometido por el Gobierno Municipal. Para empezar, el expediente de contratación y los pliegos no fueron aprobados hasta el 25 de abril de 2017.

Las obras se adjudicaron a la empresa LURGOIEN SAU, y se fijó un plazo de ejecución de cuatro meses. Sin embargo, cinco meses después de la adjudicación, el parque de Harria todavía carecía de cubierta.

obrak 2017ko irailean hasi ziren, baina bat-batean eten egin ziren. Hirigintzako zinegotzi ordezkariak prentsari egindako adierazpenetan esan zuenez, obrak egiten ari ziren bitartean oztopoak aurkitu zituzten, eta haiek aztertzeko, hiru asteko etenaldia beharko zuten.

Según manifestaciones de los vecinos y vecinas, las obras comenzaron en septiembre de 2017, pero se paralizaron de forma repentina. El concejal delegado de Urbanismo señaló, en declaraciones a la prensa, que se habían encontrado algunos impedimentos durante la ejecución de las obras y que sería precisa una interrupción de tres semanas para su estudio.

2018ko otsailean Udalbatzak mozioa onartu zuen eskatzeko Udal Gobernuari Harria parkeko gune estaliaren obraren kronograma zehatza aurkezteko auzotarrei, eta epeak betetzen ez baziren, azalpenak emateko auzotarrei eta Udalbatzari. Lanak amaitzeko epe berria ezarri zuen Udal Gobernuak, 2018ko martxoaren 19a, baina hura ere ez zen bete, eta azken epea 2018ko maiatzaren 25a izango zela iragarri zuen zinegotziak; bada, epe hori ere ez zen bete. Tarte horretan, Udal Gobernuak ez zuen bilerarik egin ez auzotarrekin ezta udal taldeekin ere. Azkenik, 2018ko udan amaitu zituzten lanak.

En febrero de 2018, el Pleno del Ayuntamiento aprobó una moción en la que se solicitaba al Gobierno Municipal que presentara un cronograma detallado de la obra de ejecución del espacio cubierto del parque de Harria y que, en caso de incumplimiento de los plazos, diera las explicaciones necesarias tanto al vecindario y como al Ayuntamiento. El Gobierno Municipal estableció un nuevo plazo para la finalización de las obras, el 19 de marzo de 2018, pero tampoco este se cumplió. El concejal anunció que, el plazo definitivo sería el 25 de mayo de 2018, plazo que tampoco se cumplió. Durante todo ese tiempo, el Gobierno Municipal no se reunió ni con los vecinos y vecinas ni con los grupos municipales. Finalmente, las obras se terminaron en verano de 2018.

Behingoagatik, lanak amaituta eta auzotarrek baliatzeko moduan zeuden, baina 2019ko martxoan, estalpearen azpian jarritako egitura desegin egin zuen Udal Gobernuak. Auzoko eragileekin adostu gabe jarri zuenez, antza, auzoko inauteri konpartsei traba egiten zien. Geroago, zorua behin-behinean porlanez estalita eduki ostean, tartana jarri zen, txingotan aritzeko jolas baten irudiaz hornituta.

Por fin, las obras habían finalizado y el vecindario podía hacer uso de ellas, pero, en marzo de 2019, el Gobierno Municipal retiró la estructura bajo cubierta. Había sido colocada sin llegar a un acuerdo con las y los agentes del barrio, y parecía que molestaba a las comparsas de carnavales del barrio. Posteriormente, una vez que el suelo estaba provisionalmente cubierto de cemento, se colocó un suelo de tartán, con una imagen para jugar a la rayuela.

Gorabehera horiek guztiak aski ez eta, 2019 urtearen hondarrean, beste ezusteko bat izan zuten auzotarrek, ikusi baitzuten estalpeak

Por si fuera poco, a finales del 2019, las vecinas y vecinos tuvieron otra sorpresa, al comprobar que el agua de lluvia que se

biltzen duen euri-ura zuzenean zorura erortzen dela, ur-zurrusta moduan. Iazko azaroa oso euritsua izan da, hain zuzen, 1928tik inoizko azarorik euritsuena (480.8 mm2) izan baita. Aipatu estalpeak azalera handi samarra du, eta ondorioz, bildu dezakeen euri-ur kopurua ere ugaria da oso. Euri-ur horiek biltzeko baditu erretenak eta horiei lotutako hodiak, alde banatan, sabaiaren beheko bi muturretan. Horiekin batera, erretenen alboetan bi isurbide ireki daude. Bada, bi isurbide horietatik ur-zurrusta handiak isurtzen dira zorura, zuzenean herritarren gainera. Zentzugabea da estalpea horrela utzi izana, are euritik babesteko eraikitako egitura bat izanik. Ez dago argi lanak amaitu gabe utzi ote zituen enpresak, ala proiektua bera gaizki diseinatu ote zuen. Edonola dela ere, beharrezkoa da ur hori bideratzea, hodi itxien bidez.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

KONTROL MOZIOA:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Harria parkeko gunea estaltzeko obraren prozesuaren balorazio txosten bat egitea, eta txosten hori parteka dezala Ekialdeko Barrutiaren Udal Batzarrarekin.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari eska diezaiola lanak egin zituen enpresari estalpea behar bezala amaitzeko, lanen bermearen kontura, batere kosturik eragin gabe Udalaren diru-sailetan.

acumula en la cubierta forma un chorro de agua que cae directamente al suelo. El año pasado el mes de noviembre fue muy lluvioso, el más lluvioso desde 1928 (480.8 mm2). La cubierta del parque tiene una superficie bastante grande, por lo que puede acumular gran cantidad de agua. Para la recogida de aguas pluviales, cuenta con canalones y conductos asociados a ellos, a ambos lados, en los dos extremos inferiores del techo. Además, a los lados de los canalones, hay dos sumideros abiertos. De estos dos sumideros, caen grandes chorros de agua al suelo, directamente sobre las personas que pasan por allí. No tiene sentido que la cubierta se haya dejado así, siendo una estructura construida, precisamente, para protegerse de la lluvia. No está claro si la empresa dejó los trabajos sin terminar o si el proyecto fue mal diseñado. En cualquier caso, es necesario canalizar esta agua mediante conductos cerrados.

Por todo lo expuesto, el concejal abajo firmante presenta la siguiente MOCION DE CONTROL:

MOCIÓN DE CONTROL:

1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que elabore un informe de valoración del proceso de ejecución de la cubierta de parque de Harria, y a que lo comparta con la Junta Municipal del Distrito Este.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que solicite a la empresa que ejecutó las obras que finalice la cubierta del modo debido, con cargo a la garantía de las obras, y sin que su coste afecte en absoluto a las partidas económicas del Ayuntamiento.

Donostian, 2020ko urtarrilaren 24an

Zigor Etxeburua Urbizu
EH Bildu udal taldeko zinegotzia."

San Sebastián, 24 de enero de 2020

Zigor Etxeburua Urbizu,
concejal del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Zigor Etxeburua Urbizu jaunak, Haizea Garay Gallastegui andreak, Borja Corominas Fisas jaunak eta Marisol Garmendia Beloqui andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Zigor Etxeburua Urbizu, D.ª Haizea Garay Gallastegui, D. Borja Corominas Fisas y D.ª Marisol Garmendia Beloqui, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.12. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Plaza Haundiko (Martin Santos Plaza) gune estaliaren proiektuaren egoera dela eta.**

"Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2020ko urtarrilaren 22an Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Egiatarrak aspaldi ari dira Plaza Haundi edo Martin Santos plazako estalkia berritu behar dela aldarrikatzen. Egia Bizirik auzo elkarteak gogoeta bat egin zuen estalki berri baten eta

**II.2.12. Moción de Control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre el proyecto de espacio cubierto de la plaza Haundi (plaza Martin Santos)**

"Olaia Duarte López, concejala del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción para que sea tratada en el Pleno. Esta moción es consecuencia de la interpelación sustanciada ante la Comisión de Espacios Públicos el pasado 22 de enero de 2020.

JUSTIFICACIÓN

Los vecinos y vecinas de Egia vienen reclamando, desde hacer tiempo, la renovación de la cubierta de Plaza Haundi o plaza de Martin Santos. En el año 2016, la

haren ezaugarrien inguruan eta 2016. urtean auzo elkarteak gai honen inguruko partaidetza prozesu bat martxan jartzeko eta proiektua gauzatzeko eskaera egin zion Udalari.

asociación de vecinos y vecinas Egia Bizirik, tras reflexionar sobre la necesidad de una nueva cubierta y sobre las características que esta debería reunir, solicitó al Ayuntamiento que pusiera en marcha un proceso de participación en relación con este asunto y que ejecutara el proyecto oportuno.

2017. urtean, Udalak partaidetza prozesu bat jarri zuen abian Egia Bizirik auzo elkarteak egindako gogoeta horiek auzoko gainerako bizilagunek egindakoekin osatzeko asmoz.

En el año 2017, el Ayuntamiento puso en marcha un proceso de participación para completar las reflexiones de la asociación Egia Bizirik con las del resto de vecinos y vecinas del barrio.

Partaidetza prozesua bukatu ondoren proiektua definitu zen eta lehenengo eraikuntza fase baterako 1.300.000€-ko aurrekontua aurreikusi zen. Aurreko agintaldiko Udal Gobernuak iragarri zuen obrak 2018. urteko udazkenean hasiko zirela eta zortzi hilabeteko epea izango zutela.

Una vez finalizado el proceso participativo, se definió el proyecto y se previó un presupuesto de 1.300.000 € para la primera fase de construcción. El Gobierno municipal del mandato anterior anunció que las obras comenzarían en otoño del 2018 y que tendrían una duración de ocho meses.

Urtebete joan den honetan, bizilagunek zain jarraitzen dute obrak noiz hasiko. Urriko batzordean delegatua interpelatu genuenean adierazi zigun adostasun falta zegoela plaza azpian dauden aparkalekuetako jabe pribatuekin eta horregatik ezin izan direla obrak hasi. Antza denez, garaje jabeak ez daude gustura prozesu hau eramateko moduarekin eta, areago, badituzte bete gabe Udalarentzako zenbait eskaera. Baina hau horrela izanda, ez da urtebeteko atzerapena justifikatzen.

Ha transcurrido un año, y los vecinos y vecinas siguen esperando el inicio de las obras. En la comisión de octubre, en respuesta a la interpelación que presentamos en relación con este asunto, la delegada nos indicó que había discrepancias con los propietarios y propietarias de los aparcamientos situados bajo la plaza y que ese es el motivo por el que no se han podido iniciar las obras. Parece ser que los propietarios y propietarias de los garajes no están de acuerdo con la forma en la que se ha llevado este proceso y que, además, tienen varias solicitudes pendientes en el Ayuntamiento. Sin embargo, esto no justifica el retraso de un año.

Gogorarazi behar da, bestalde, Grosen, Zuberoa plazako gune estalia ere baztertu duela Udal Gobernuak (2017rako obra honek amaituta egon beharko luke). Eta harrigarria da, izan ere, 2019ko maiatzaren 17an Udal

Hay que recordar que en Gros, el Gobierno municipal también ha descartado la realización del espacio cubierto de la plaza de Zuberoa (esta obra debía haber finalizado para el 2017). Resulta sorprendente, ya que

Gobernuak, prentsan egindako adierazpenetan, Zuberoa plazako gune estaliaren proiektua bertan behera utziko zuela adierazi zuen, aurrekontu guztia Egiakoan inbertitzeko (hau da, aurrekontuaren egokitzapena egin zuen Zuberoa plazako 785.000 euro Plaza Haundin erabiltzeko).

el 17 de mayo de 2019 el Gobierno municipal, en declaraciones realizadas en prensa, anunció la suspensión del proyecto del espacio cubierto de la plaza de Zuberoa para invertir todo el presupuesto en Egia (es decir, modificó el presupuesto para destinar los 785.000 euros de la plaza de Zuberoa a Plaza Haundi).

Gauzak horrela, 2015etik aurrera estaltzea aurreikusten ziren hiru plazetatik bat bakarrik dago estalia. Hori zela eta, 2019ko azaroko udalbatzarrean honako kontrol mozio hau aurkeztu genuen:

Por tanto, de las tres plazas que se preveían cubrir a partir del 2015 tan solo se ha cubierto una. Por ello, en la sesión plenaria de noviembre del 2019 presentamos la siguiente moción de control:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari 2019-2023 agintaldian hirian estaltzea aurreikusten dituen plaza edo parkeen berri ematea.

1.- El Pleno insta al Gobierno Municipal a que informe sobre las plazas o parques que prevea cubrir en la ciudad durante el mandato 2019-2023.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Plaza Haundiko gune estaliaren obra egiteko beharrezkoak diren pausoak ematea, 2020an lanak hasi ahal izateko.

2.- El Pleno insta al Gobierno Municipal a dar los pasos necesarios para la ejecución de la obra del espacio cubierto de Plaza Haundi, con el fin de iniciar las obras en el año 2020.

3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hiriko gune estalien beharrak aztertzeko eta obren jarraipen egokia egiteko Batzorde bat sortu dezala.

3.- El Pleno insta al Gobierno Municipal a crear una comisión para analizar la necesidad de espacios cubiertos que presenta la ciudad y realizar un seguimiento adecuado de las obras.

Gezurra dirudi arren, Udal Gobernuak ezezko bozka eman zien hirian estali behar diren guneen zerrenda egiteari, Plaza Haundiko lanak 2020an hasteari eta gune estalien batzordea eratzeari.

Aunque parezca mentira, el Gobierno municipal votó en contra de elaborar una lista de las zonas que deben cubrirse en la ciudad, de iniciar las obras de Plaza Haundi en 2020 y de constituir una comisión de espacios cubiertos.

Hilabete honetan, Egia Bizirik auzo elkarteko kideek adierazi digute gaiak bere horretan jarraitzen duela eta gune estaliaren obren atzerapenarekin kezkatuta daudela. Delegatuak aste honetako batzordeetan aipatu du ezin dela aurreikusitako proiektua aurrera eraman, plaza

Este mes los miembros de la asociación Egia Bizirik nos han manifestado que el asunto sigue igual y que están preocupados por el retraso de las obras para cubrir dicho espacio. La delegada ha señalado en las comisiones de esta semana que no se puede

azpiko garajeetako jabeek ez dutelako baimenik ematen eta udal teknikariek baimenik behar ez duen proiektu bat diseinatzen ari direla ezagutarazi du.

llevar a cabo el proyecto previsto, ya que los propietarios y propietarias de los garajes situados bajo la plaza no dan su consentimiento. Asimismo, ha comunicado que el personal técnico municipal está diseñando un proyecto que no requiere autorización.

Egoera hau kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

Por todo ello, y teniendo en cuenta la situación anteriormente expuesta, la concejala abajo firmante presenta la siguiente

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Plaza Haundi edo Martin Santos gunea estaltzeko proiektuan zerikusia duten alderdi guztiekin hitz egin dezala, aintzat har ditzala haien eskaerak eta ahalegina egin dezala, adostasunak lortuta, orain arte landutako proiektua gauzatzeko.

1.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno municipal a que hable con todas las partes implicadas en el proyecto de cubrimiento de la zona de Plaza Haundi o plaza de Martin Santos, a que tenga en cuenta las peticiones de todas ellas y a que, tras alcanzar los consensos oportunos, haga un esfuerzo para llevar a cabo el proyecto elaborado hasta la fecha.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Plaza Haundiko gunea estaltzeko proiektuan aldaketak egin nahi izango balitu, 2017ko prozesu parte-hartzailean inplikatutako eragileak kontuan izan ditzala eta aldaketa horiek ere haiekin landu ditzala.

2.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno municipal a que, en el caso de que desee introducir modificaciones en el proyecto de cubrimiento de la zona de Plaza Haundi, tenga en cuenta a todos los agentes implicados en el proceso participativo del 2017 y a que analice dichas modificaciones con todos ellos.

Donostian, 2020ko urtarrilaren 24an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia.”

San Sebastián, 24 de enero de 2020

Olaia Duarte López
concejala del grupo municipal EH Bildu”.

Eztabaida hasita, Olaia Duarte Lopez andreak, Haizea Garay Gallastegui andreak eta Marisol Garmendia Beloqui andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto las señoras D.ª Olaia Duarte López, D.ª Haizea Garay Gallastegui y D.ª Marisol Garmendia Beloqui, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (2) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 13 - (9) EAJ-PNV, (4) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (2) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 13 - (9) EAJ-PNV, (4) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.13. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Txomiñenea auzoko hirigintza eta/edo urbanizazio jarduerak direla eta.**

“EH Bildu udal taldeko zinegotzi Ricardo Burutaran Ferré EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, Txomineñea auzoko hirigintza eta/edo urbanizazio jarduera batzuei buruzko KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa, urtarrilaren 22an, Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Txomiñeneko Lanberri auzo elkarteak jakinarazi digu kezkatuta daudela auzoan eragina duten gai batzuengatik. Esate baterako, bizilagunek esan digute ez dela betetzen ari hirigintzako emakida esleitzeko baldintzen orrietan ezarritako betebehar bat, hau da, bi hilean behin bilerak egitea, herritarrei irekiak, jarduera

**II.2.13. Moción de control, presentada por el grupo EH BILDU, sobre distintas actuaciones urbanísticas y/o de urbanización en el barrio de Txomin enea.**

”Ricardo Burutaran Ferré, concejal del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL para ser tratada en Pleno, sobre distintas actuaciones urbanísticas y/o de urbanización en el barrio de Txomin Enea. La moción es consecuencia de la interpelación sustanciada en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio el pasado 22 de enero.

JUSTIFICACIÓN

Desde la asociación de vecinos de Txomin Enea Lanberri nos han hecho llegar su preocupación por diferentes cuestiones que afectan al barrio. Así, los vecinos nos refieren que se está incumpliendo la obligación, establecida en los pliegos de adjudicación de la concesión urbanística, de celebrar

horietan sortzen diren gorabeheren inguruan, halakorik bada.

reuniones bimensuales abiertas a la ciudadanía, sobre las distintas incidencias que puedan estar surgiendo en el desarrollo de las mismas.

Baina beste gauza batzuen gaineko kezka ere adierazi digute: erabilitako material batzuk kalitate eskasekoak direla eta/edo obrak ez daudela behar bezala bukatuta, ez dela segurtasun neurririk hartu, argiztapenean akatsak daudela eta irisgarritasunik ere ez dagoela -batez ere, Aintzietako pasealekua altxatzeko obrak eta Felisa Martin Bravorekin dituen loturak direla eta−.

Igualmente nos refieren su preocupación por la falta de calidad de algunos materiales empleados y/o falta de un adecuado grado de terminación en las citadas obras; así como falta de adopción de medidas de seguridad, fallos en la iluminación y falta de accesibilidad -especialmente, con motivo de las obras de elevación del paseo de Antzieta y sus conexiones con la calle Felisa Martín Bravo-.

Bestalde, kezkatuta daude Udal Gobernuaren hainbat ordezkarik Arteleku plaza urbanizatzeko eta kirol eta kultur ekipamendua eraikitzeko iragarritako epeak beteko ote diren.

Por otra parte, nos muestran su inquietud con respecto al cumplimiento de los plazos anunciados por distintos representantes del Gobierno Municipal, tanto para la urbanización de la Plaza de Arteleku, como para la construcción del equipamiento deportivo y cultural.

Udal Gobernuari horri buruzko interpelazioa egin genion, eta Hirigintza Iraunkorreko eta Etxebizitzako ordezkariak erantzun zigun, baldintza orrietan jasotakoaren arabera, herritarrei informazioa emateko Udalak egiten dituen bileretara joatea besterik ez duela egin behar emakidadunak. Erantsi zuen, bestalde, bilera asko egingo balira, bizilagunek motibazioa galduko luketela.

Interpelado al respecto el Gobierno Municipal, la delegada de Urbanismo Sostenible y Vivienda nos contestó que en los pliegos se establece únicamente la obligación del concesionario de acudir a las reuniones informativas con el vecindario que convoque el Ayuntamiento. Añadiendo a continuación que la convocatoria de un número excesivo de reuniones desmotivaría a los vecinos.

Gobernu taldea da, beraz, auzotarrei biltzera deitu behar diena eta, ordezkariaren adierazpenetatik kontrakoa ondorioztatu badaiteke ere, informazio bilera horien helburua ez da bakarrik proiektuan izaten diren berrikuntzen berri ematea; parte hartzeko bide aktiboa eskaintzea ere bada. Izan ere, Txomiñeneko auzotarrei aukera eman nahi zaie obra horiek sortzen dizkien arazoak jakinarazteko eta haiek arintzeko edo gutxitzeko neurriak hartu behar direla ohartarazteko.

El equipo de gobierno es, por tanto, el responsable de convocar las reuniones informativas con los vecinos, donde a diferencia de lo que parece pretende sugerir, no se trata únicamente de dar noticia de las novedades que pueda experimentar el proyecto; se trata de proporcionar un cauce activo de participación donde el vecindario de Txomin Enea pueda exponer la distinta problemática que la ejecución de las obras les irroga, así como la necesidad de adoptar

medidas para paliar o minorar las mismas.

Hori dela eta, gogorarazi behar dugu gai hauek aurkeztu ditugula auzo elkarteko ordezkariek hala egiteko eskatu digutelako. Horrek esan nahi du, ordezkariak “beste informazio-bide batzuk badaudela esan badu ere (mezu elektronikoak, telefono deiak)”, auzoan dagoen pertzepzioa dela bide horiek ez dutela funtzionatzen. Hala, bada, Udalak hausnarketa bat egin beharko luke horren inguruan.

En este sentido se nos hace preciso recordar que las cuestiones que presentamos son a instancia de representantes de la propia asociación de vecinos, lo que implica que, a pesar de que la delegada se remita a la existencia de “otros cauces de información (correos electrónicos, llamadas telefónicas)”, la percepción que existe en el barrio es que los mismos no funcionan, lo que debería llevar al Ayuntamiento a hacer una reflexión al respecto.

Bestalde, Udal Gobernuak uste badu ere obrak behar bezala egiten direla zaintzeko ezarritako kontrol neurriak “obra mota horri dagozkionak” direla, obren erasana jasaten ari diren auzotarrekin komunikatzeko bide hobeak izango balitu, egiaztatuko luke auzotarrak ez datozela bat baieztapen horrekin.

Asimismo, a pesar de que el Gobierno Municipal considere que las medidas de control en la vigilancia de la ejecución de las obras “son las propias del tipo de obra” lo cierto es que, de tener abiertos unos mejores cauces de comunicación con el vecindario afectado por la ejecución de las obras, podrían verificar que dicha afirmación no es compartida en el barrio.

Horiek horrela direla, hauxe da EH Bildu udal taldearen KONTROL MOZIOA:

Por todo ello, el grupo municipal de EH BILDU presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari indartu ditzala Txomiñeneko obren inguruan auzoan dauden informazio mekanismoak, eta ezar ditzala parte hartzeko bideak, ez bakarrik obrak egitean sor daitezkeen gorabeherei buruz informatzeko, baizik eta baita kexak eta hartu asmo diren neurri aringarriak aztertzeko ere.

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a reforzar los mecanismos de información en el barrio sobre la ejecución de las obras de Txomin Enea, estableciendo unos cauces de participación que no solo informen sobre las distintas vicisitudes que puedan surgir en la ejecución de las obras, sino que también permitan tratar las quejas que se están produciendo, así como las medidas que se piensan adoptar para paliar las mismas.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu taldeari indartu ditzala Udalak obra zaintzeko jartzen dituen kontrol neurriak, segurtasunari eragiten dioten akatsak

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al equipo de gobierno a reforzar las medidas de control en la vigilancia de la ejecución de la obra por parte del

saihesteko edo arintzeko, eta auzoko bizilagunentzako irisgarritasun baldintza egokiak bermatzeko, bai eta lan horiek behar bezala gauzatzeko ere.

Ayuntamiento de forma que se eviten o, se mitiguen, las deficiencias que afectan a la seguridad y se garanticen unas adecuadas condiciones de accesibilidad paras las personas residentes en el barrio, así como una correcta ejecución de las mismas.

3.- Era berean, Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, Artelekuko ekipamendua martxan jartzeak ekarriko duen atzerapena dela eta, egin ditzala hobekuntzak Txomiñeneko haurtxokoan, lokal horrek, erabiltzen den bitartean, gutxieneko erosotasun baldintzak izan ditzan.

3.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta igualmente al Gobierno Municipal, debido a la demora que va a requerir la efectiva puesta en funcionamiento del equipamiento de Arteleku, a acordar la realización de mejoras en el local del Haurtxoko de Txomin Enea, de forma que, mientras siga estando operativo, disponga de las condiciones mínimas de confort necesarias para su uso.

Donostia, 2020ko urtarrilaren 24a

Izpta.: Ricardo Burutaran Ferré
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Donostia, a 24 de enero de 2020

Fdo.: Ricardo Burutaran Ferré,
Concejal del Grupo Municipal EH BILDU".

Eztabaida hasita, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Haizea Garay Gallastegui andreak, Mikel Lezama Zubeldia jaunak eta Nekane Arzallus Iturriza andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Ricardo Burutaran Ferré, D.ª Haizea Garay Gallastegui, D. Mikel Lezama Zubeldia y D.ª Nekane Arzallus Iturriza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (2) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 13 - (9) EAJ-PNV, (4) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (2) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 13 - (9) EAJ-PNV, (4) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**ATSEDENALDIA**

**13:53AN, ATSEDENALDIA EGITEN DA ETA BERRIRO ERE EKITEN ZAIO SAIOARI, 15:13AN.**

**RECESO**

**SIENDO LAS 13:53 H., SE REALIZA UN RECESO Y SE REANUDA LA SESIÓN, CUANDO SON LAS 15:13 H.**

---------------

**II.2.15. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Jolastokietan egitekoak diren 36 etxebizitzen aurreikuspena zertan den jakiteari buruzkoa.**

”EH BILDU udal taldeko zinegotzi Ricardo Burutaran Ferrék, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Jolastokietan egitekoak diren 36 etxebizitzen aurreikuspena zertan den jakiteko, osoko bilkuran azter dadin. Mozioa Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordeak 2020ko urtarrilaren 22an egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Abenduaren 24an, komunikabideen bidez “jakinarazi” zen, dirudienez, Udaleko etxebizitza entitateak eta Sukia eraikuntza enpresak eten egin behar izan dutela Jolastokietan egitekoak ziren 36 etxebizitza babestuak (tasatuak)”, ustez ez “esleipen prozesuan parte hartu nahi duen jendea falta delako”.

Urtarrilaren 10ean, berriz ere, komunikabide baten bidez “jakinarazi” zen 2020ko urtarrilaren

**II.2.15. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la situación en que se encuentra la previsión para la construcción de 36 viviendas tasadas de Jolastokieta.**

“Ricardo Burutaran Ferré, concejal del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico de Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL para ser tratada en Pleno, sobre la situación en que se encuentra la previsión para la construcción de 36 viviendas tasadas en Jolastokieta. La moción es consecuencia de la interpelación sustanciada en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio el pasado 22 de enero.

JUSTIFICACIÓN

Con fecha 24 de diciembre se “informaba” a través de los medios de comunicación que, al parecer, la entidad municipal de vivienda y la constructora Sukia “se han visto en la obligación de suspender la construcción de 36” Viviendas Protegidas (Tasadas) en Jolastokieta, por una supuesta “falta de personas interesadas en participar en el proceso de adjudicación”.

